


OLEAGA PÁRAMO, RAMÓN. ESPARZA ZABALEGI, JOSE MARI.
Imago Vasconiae. Euskal Herria. Kartografia historikoaren Atlasa.
AGIRREAZKUEANAGA, JOSEBA. Hitzaurrea.

Tafalla, Txalaparta, 2023, 437.or. ISBN 978-84-19319-92-0.



Ramón Oleagak eta Jose Mari Esparzak denbora daramate euskaldunen iragana mapen bidez aztertzen eta erakusten. Euskal Herria eta mapak uztartzen dituen ikerketa lerro hau, nolabait, 1984an abiatu zela esan daiteke, Felix Ugarte eta Juan Madariagak kartografia historikoari buruzko proiektua martxan jarri zutenean. Lan aitzindari haren ostean, 1994an, Oleagak Euskal Herriko kartografia historikoari eskainitako erakusketa antolatu zuen. Hamarkada bat beranduago, 2004an, *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos* izeneko 6 liburukietako lehendabizikoan, 130 orrialdetako Euskal Herriaren kartografia historikoaz ekarpen nabarmena burutu zuen Oleagak berak¹.

1. OLEAGA PÁRAMO, Ramón de: “Representación histórica de los territorios y lugares de Euskal

Esparzak bestalde, 2011ean, *Mapas para una nación* [Txalaparta] izeneko liburua argiratu zuen, zabalkunde handia lortuz. Ordutik, batak zein besteak, ez dute atsedetik hartu bere egitekoan eta argitalpen berri honekin, ibilbide luze zabala borobiltzea lortu dute.

Irakurleak alea heltzen duen momentuan konturatuko da eskuartearen daukana ez dela ohiko liburu bat. Bere formatu handitik hasita, paper berezian, diseinu eta inpresio ederrekin eta mapa ikusgarrieekin dago osatua. Laboral Kutxaren laguntzarekin, Txalapartak edizio bikaina prestatu duela esan daiteke. Hala, kartografia bilduma honen atzean dagoen lan ikaragarriarekin bat egiten du editorialak itxurari eta txukuntasunari eskaini dizkien arretak.

Oleagak eta Esparzak, bilduma hau mapa bakoitzari jarri dizkioten data, egilea eta jatorrizko bildumarekin osatu dute. Hain zuzen ere, hori izaten da halako lanek edukitzen duten zatirik astunena, alegia, maparen identifikazio eta testuinguraketa egokia burutzea. Horretarako, sarreran irakurri daitekeenez, bertoko, Estatu mailako zein nazioarteko agiritegi eta funtsa inportanteenak arakatu zituzten. Oinarriak ondo ezarrita, beraz, hasierako aukeraketa (zientifiko) batean, 800 mapa berezi ostean, bi autoreek euskal lurraldeei erreferentzia egiten dizkien 313 mapa aukeratu dituzte. Eraitza, ikusgarria da.

Baina euskaldunari dagokion orok, hainbat oztopo gainditu behar dituela dirudi. Euskara hutsean idatzi zen lehendabiziko liburu inprimatuan, euskaraz idazteak nolabaiteko azalpena edo justifikazioa behar zuela iruditu zitzaion Bernard Etxepareri: euskara ere, gainontzekoak bezala, idatziz transmititu zitekeen hizkuntza bat zela demostratu nahi izan zuen.

Ordutik, ia bost mende igaro diren arren, euskarari eta euskaldunoi eragiten dizkigun zenbait koiuntura askorik aldatu ez direla iruditu dakioke norbaiti. Euskarak eta euskaldunok dena delako “ere” hori demostratzen jarraitzen dugu, etengabe. 1980 eta 1990eko hamarkadetan itzuli ziren eztabaida historiografikoak horren adibide. Iraganeko auziak ziruditenek berriro akademikoen arreta bereganatu zuten, nahiz eta kezkak beste modu batera azaleratu ziren: zer da euskal? eta “vasco”? Eta beraz, zer dira *cultura vasca*, “*cine vasco*”², “*arte vasco*” edo “*literatura vasca*”³. Aurtengo urtean bertan, oraindik, intelektuaren foro batean honako galdera hau entzun zen: “¿existe la música vasca?”.

Euskaldun batek ez dauka zalantzarik euskal musika existitzen dela. Ezta

Herria”, Joseba AGIRREAZKUENAGA (koord.): *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*, 1.T., Lur Argitaletxea, Donostia, 2004, 55-184.or.

2. ZUNZUNEGUI, Santos: *El cine en el País Vasco*, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo, 1985, 600.or.

3. AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka: “Un siglo de literatura vasca (I)”, *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca* (1995) 5, 17-48.or.

euskal artea, euskal zinema, euskal kultura edo Euskal Herria bera ere. Bestela bere izatea osorik zalantzan jarriko luke (osotasun hori edonola ulertuta ere). Joseba Agirreazkuenagak liburuari egiten dion hitzaurrean adibidez, kezka honek beregan oraindik eragiten jarraitzen duela iradokitzen digu: nolabait, euskalduntasuna bera historian zehar nola gauzatu edo praktikara eraman den erreparatu du Agirreazkuenagak. “*Les Basques ont-ils une histoire?*”.

Euskal Herriaren historian erreferente nagusia den katedradunak, Anton Abbadie erabiltzen du hitzaurrearen abiapuntutzat. 1892an egindako “Euskaldun Bestak” eta “Zazpiak bat” goiburua, euskaldunen kontzientzia-hartzearen mugarritzat nabarmentzen ditu berak: euskaldunak badira eta zazpi administrazioan banatuta daude. Bide batez esan, ez dela harritzekoa, lehendabiziko adierazpen kultural haiek, jada euskal abertzaletasun politikora eboluzionatzen ari zirenak, Pirinioz iparraldera agertu izana. Herriarraren, nazioaren eta Estatuaren inguruko eztabaidetatik hurbilago egotea tokatu zitzaion XIX.mendean hazi ziren euskaldunei. Eztabaidok, ziur asko, Frantzian beste inon baino indartsuago kolpatu zituzten garaiko biztanleen kontzientziak.

Agirreazkuenagak hitzaurrean aipatzen duenari jarraituz, Esparak berak ere, “Ahozko kartografia” deitu dion hitzaurrean, lana egiteko motibazio nagusienak norabide hori jarraitzen duela azaltzen du. Historian zehar, euskaldunen lurraldeok nola irudikatu diren jasotzeko asmoak bultzatu du egile nafarra bilduma hau osatzera: Ptolomeo, Prudentzio poeta latinoa, Paulino Nolakoa, Plinio eta Tito Livio, Joanes Leizarraga, Joan Pérez Lazarraga, Axular, Arnaud Oihenart, Antonio Chavier, Joanes Etxeberri, Aita Larramendi, Diego Lazkano eta Alexander v. Humboldt. Azken honek, historia garaikideari ateak ireki zizkion, hain zuzen ere, irudiak ahozkotasuna zikiratzen hasi ziren garaia. XIX.mende horretan zehar, laster, kartografia *nazionalak* bateko eta besteko orrialdeak beteko zituen.

Izan ere, kartografiaren zabalkundearen historia bera, ez da kasualitatea. Europarrek mundua deskubritu zutenean, kartografiak izugarrizko hazkundera ezagutu zuen. Europarrak mundua kolonizatzen hasi zirenean, lurralde berriak (eta zaharrak) irudikatzeke agindu zuten gorteei, zientzia geografikoari bigarren bultzada garrantzitsua emanez. XIX.mendean abiatu ziren industrializazioek eta hortik eratorritako aurrerapen teknologikoei, kartografia muturreraino eraman dute.

Euskal Herriaren kasuan, bestalde, Frankoren diktadura garaiko eta osteko urteetan, Euskal Herri (politiko) baten nahiaren inguruko isla izan da kartografia. Oleagak zorrotz jasotzen duen moduan, mapak ez dira irudi hutsak, “arma ahaltsua” baizik, “beste helburu batzuk” izkutatzen dituzten medioa dira. Horrela ulertzen da adibidez, mapa gehienetan euskaldunak muga politikoez banatuta agertzea edota askotan Pirinioz iparraldekoen erreparatu ere ez egitea. Gehienak ez dira euskaldunen mapak. Hala, mapa hauek osatu dituztenei kasu

eginez gero, aurrez aipatu Arnaud Oihenart, Joanes Etxeberri edota Bernard Etxeparek berak, ez lukete (hegoaldeko) euskaldunekin zerikusirik edukiko edo ez behintzat, mapa batean elkarrekin irudikatzeko adinako ezaugarririk elkarbanatuko. Batzuk frantziarrak dira eta besteak espainiarrak.

Izan ere, mapa bat begiztatzen dugunean, “zertarako?” galdera presente eduki behar dugu beti: zertarako irudikatu zuten lurralde hau modu honetara? Erantzun posibleak ugari dira, baina hemen, bi nabarmenduko nituzke. Alde batetik, mapen egileen ikuspuntua dago: nahiz eta biak ala biak frantziarrak izan, Melchior Tavernerrek liburuzainaren begirada edota Alexandre Vuilleminnek eduki zezakeena, ez ziren berdinak. Bakoitzak bere interesei erantzun zien. Bestetik, bildumaren egileen irakurketa ere agerikoa da: identifikatu zuten hutsunea betetzea da euren helburua, euskaldunak nonbait bizi izan zirela demostratzea eta mapa hauetan marrazten diren mugaz gaindi, izan bazirela. Oleagak berak, mapak kritikotasunez begiratu behar direla ohartarazten du. Mapa ez baita lurraldea.

Gogoeta honek, aldi berean, hurrengo galderara garamatza: posible al da euskaldunen lurraldea kartografiatzea? Lanaren autoreek erantzuna argi daukate: bai. Erantzuna eta helburua garbiak izan arren, ekimena ez da erreza: historian zehar, batzuetan euskaldunen lurralde bezala irudikatu dena, gehienetan, euskaldunak beste *zerbaiten* parte bailitzan irudikatu dira. Lurraldea beraz, ez da euskaldunena, nahiz eta euskaldunak bizi bertan. Salbuespen gutxi batzuk kenduta, kartografiaren historiak ondorioztatzen duen errealitatea da hori. Horrek oztopatu du, agian, Euskal Herria osorik kartografiatu ez izana, eta bere agerpena, hainbeste atzeratu izana.

Aurrekoa gogoan hartuta, lan eder honek, ekarpen garrantzitsuak egiten dizkie Euskal Herriaren historia eta historiografiari. Batetik, munduan nabarmendu ziren kartografoek inguruok nola ikusten zituzten jasotzen da. Adibide onak dira, esaterako, Battista Agnesen 1553ko atlas portulanoa (41. or.), Urbano Montiren mapamundia (1587, 53.or.) edota Heinrich Bünting teologo germaniarraren Europa (1587, 54.or.). Bestetik, euskaldunen historiara pasa diren beste hainbat mapa interesgarri ere jaso dituzte: 1852ko Espainiaren mapa politikoa zeinetan hegoaldeko euskal lurraldeak “España Foral” bezala deskribatzen diren, Louis Lucien Bonaparteren euskalkien mapa (1863, 192. or), Juozas Gabrys lituaniarraren *Europako mapa etnografikoa* (1918, 259. or), Enrique Jordá Gallastegi eta Jesús Martínez Utrilla donostiarren euskaraz idatzitako Euskal Herriko atlasa (1935, 277.or), garai batean Gipuzkoako etxebizitza gehienetan zintzilikatu zen José Luis Zumarragaren *Euskaleri'ko Karta* (1983, 274.or.), edota Mikael Bodlore-Penlaezek 2014an marraztu zuen *Europako-nazioak* izenburua daraman mapa, zeinak Euskal Herriko hiriburua Iruña dela jasotzen duen (326-327.or.).

Laburbilduz, historialari nahiz kuriosoek ezagutu beharko lituzketen mapa

nagusienak bilduma bakar batean gorde dituzte, euskaldunak erreferente hartuta. Ez daude denak, baina daudenek hemen egon behar zuten. Honek, nolabait, liburuaren tamaina handian ere eragin du. Oleagak dioenez, ez da “apaingarri” soil, kartografia bilduma interesgarri bat da. Nik, zera gehituko nioke: arte bilduma eder bat bezala ulertu daiteke liburua, etxean ondo gordetzea eta erakustea merezi duena.

Dena dela, aurrez aipatu denez, kartografia bilduma honek, beste ezaugarri bat ere gordetzen du bere baitan: denboran zehar eta erdigunean euskaldunak eta euskal herriak jarri dituela. Hori egin duen lehendabiziko lan serioa da berau. Espartzak berak harriduraz jasotzen duenez, “gure lurralde osoaren kartografia biltzen duen atlasik existitzen ez zelako” egin dute.

Eta azkenik, nire ustetan, liburu soil bat baino gehiago den lan honek egin duen ekarpen nagusiena, hasieran aipatzen zen auziarekin lotutakoa da: euskaldunak edo euskaldunok izan garela eta izaten jarraitzen dugula demostratzeko behar etengabe horri erantzun eder bat eman dio. Ez definitiboa, baina bai mugarria izango dena. Euskaldunontzat baina baita kanpotik begiratu digutenentzat ere. Finean, hori izan baita euskaldunen historia osoan gehien nabarmendu den ezaugarria: *beste aldetik* luzatutako begirada. Kartografia historikoak, aipatu ariketa egiteko euskarri paregabea dela demostratu du. Idatzita badago, existitu zen. Mapan agertzen bada, badira.

Unai Belaustegi
EHU-UPV